

Kostuen egitura

Negozio-eredu bat aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiei KOSTUEN EGITURA deritzogu.

Gure negozioari dagokionez, kostuak, hainbat arlotan bereiziko ditugu: **kostu finkoak**, non hauek ez dauden ekoizten diren unitateen menpe eta **kostu aldakorrak** non hauek aldiz ekoizten diren unitateen menpe daudelarik.



Kostu-finkoak:

-Komuniukazio zerbitzu teknikoak, hau da interneta, telefono sarea (registratu berriak diren emakumeen egitasuna konprobatzeko eta zerbitzuen arloan bezeroaren arretarako zerbitzua.) eta aplikazio zerbitzarien mantenimentua hilaro ordainduko ditugu.

-Aplikazioa sortzeko programatzaile bat kontratatuko dugu baina hori behin bakarrik ordainduko dugu. Beraz, hasierako inbertsioa izango litzateke.



Kostu-aldakorrak:

-Kontratatuko ditugun langileak, orduengatik ordainduko diegula.

Halaber, zabalkuntza edo hedapen ekonomikoa erabiliko dugu, aplikazio berdinean, bi atal sartuz.

Alde batetik, bezeroen eskakizunak erantzuteko atala, non hau gure diru iturri nagusia izango den eta bestetik bereiziko dugu emakumeak beraien artean etxera edo lekuren batera elkarrekin joatea ahalbidetuko duen aplikazioaren atala. Azken hau, gure aplikazioa ezagutzera emateko bide nagusia izango da.

Gure zerbitzuei balio erantsia ezarriko zaie. Hala ere, nahiz eta merkatuan zerbitzu horrek eskaintzen duen enpresa bakarra izan, ez gara horretaz baliatuko prezioak gehiegi igotzeko hasiera batetik.

Horrek, ez du esan nahi denborarekin prezioak igoko ez direnik. Adibidez, zenbait bezero aplikazioa erabiltzera ohitutzen badira edo haren menpe badaude, eskaintzaren prezioak igoko dira, jakinda bezero gehienek gure zerbitzuen beharra dutela. Horrela eskaria gutxien murrizteko estrategia izango da, prezioak igotzelakoan.